



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2021EKO OTSAILAREN 24AN UDALBATZA PLENOAK EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

25. BILKURA

Azkoitia Hiri Prestu eta Leialeko udaletxean, bi mila eta hogeita bateko otsailaren 24an, arratsaldeko zazpitan elkartu da Udalbatza Osoa, lehenengo deialdian. Ohiko bilkura honetarako deialdia behar bezala egin da eta eguneko aztergai zerrendan jarri diren gaiak aztertu eta ebatzi dira.

Javier Zubizarreta Zubizarreta Alkate jauna (EAJ-PNV) izan da batzarburua, honako zinegotziak bertaratu direlarik:

Ana Azkoitia Urteaga A. (EAJ-PNV).
Imanol Arrizabalaga Larrañaga J. (EAJ-PNV).
Marijose Arregi Etxeberria A. (EAJ-PNV).
Sonia Vazquez Tejerina A. (EAJ-PNV).
Angel Luis Martin Rodriguez J. (EAJ-PNV).
Mertxe Zubillaga Albizu A. (EAJ-PNV).
Juan Bautista Mendizabal Juaristi J. (EAJ-PNV).
Iraitz Otaño Mujika J. (EH BILDU).
Laida Beristain Zubizarreta A. (EH BILDU).
Ainara Goenaga Andueza A. (EH BILDU).
Mikel Zengotita Alberdi J. (EH BILDU).
Angel M^a Etxeberria Ibarguren J. (EH BILDU).
Itziar Joaristi Olariaga A. (EH BILDU).
Ane Miren Peña Larrañaga A. (EH BILDU).
Jose Joakin Etxaniz Peña J. (IRABAZI-AZKOITIA BAI).
Janire Igoa Merino A. (PSE-EE).

Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta, Udal Idazkaria.

Alkate jaunak bilkurari hasiera eman dio, honako gai-zerrendaren arabera:

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA, HALA BADAGOKIO.

2021eko urtarrilaren 27ko bilkurako aktaren bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez,



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Ibarguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak 2021eko urtarrilaren 27an egindako bilkuraren akta onartzea aho batez erabaki du.

2021eko otsailaren 4ko bilkurako aktaren bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Ibarguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak 2021eko otsailaren 4an egindako bilkuraren akta onartzea aho batez erabaki du.

2.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN ETA AZKOITIKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA ONESTEA, TXALONERREKA AUZOAN UREN SAREAREN KONPONKETA ETA TXERLOIAN EGIN BEHARREKO LANEN INGURUKOA.

Honako irizpena aurkeztu da:

“LURRALDEA BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENA

GAIA: GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN ETA AZKOITIKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA ONESTEA, TXALONERREKA AUZOAN UREN SAREAREN KONPONKETA ETA TXERLOIAN EGIN BEHARREKO LANEN INGURUKOA

AURREKARIAK

Lehenengoa: 2018ko azaroaren 28ko Udalbatzan, onartu zen Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin hitzarmen berria sinatzea, 2019ko urtarrilaren 1etik 2028ko



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

abenduaren 31ra arteko iraupenarekin, Gipuzkoako Ur Kontsorzioak jarraitzeko Uraren Ziklo Osoaren kudeaketaren eskaintza ematen Gipuzkoako Urak S.A.ren bidez.

Bigarrena.- Hitzarmen hark zehazten zuen hurrengo 10 urteetan Gipuzkoako Ur Kontsorzioak 2.059.899€ (BEZa barne) inbertituko dituela Azkoitiko udalerrian Bajako Sarean.

Hirugarrena: 2021eko urtarrilaren 13an Azkoitiko Udal honek Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren eskaera jaso du, non zehazten den Txalonerreka eta Txerloia auzoetan hornidura eta saneamendua berri beharra dagoela.

Laugarrena: Aipatutako lan horiek egiteko aurreikusitako lanak honakoak dira:

Txalonerreka:

Ur hornidurari dagokionez egungo zuntz-zementuzko eta burdin galbanizatuzko hoditeria polietilenoazko eta burdinurtu nodularrezko hodi berriz ordezkatzeko da. Saneamenduari dagokionez, lehendikako sarea euri uretara bideratzeko da, tarte eta egungo sarerako lotura puntualekin osatuz, eta ur beltzen sare berri bat instalatzeko da, sare separatibo bat sortuz.

Txerloia:

Sarea osatzen duen egungo zuntz-zementuzko hoditeria polietilenoazko eta burdinurtu nodularrezko hodi berriz ordezkatzeko da futbol zelaira iristea ahalbidetzen duen katean.

Inguru honetako lanak baliatuko dira zebra-bide baterako irisgarritasuna hobetzeko espaloien jaitsiera bat eginez.

Bosgarrena: Hirigintza Saileko Buruak egindako txostenean zehazten da, aipaturiko bi proposamenak egokitzat ematen direla. Halere, hurrengo proposamenak egiten ditu egin beharreko lanen inguruan:

Txalonerreka auzoan saneamendu separatiboa ezartzea.

Txerloia parean gas hodia sartzeko lanak bultzatzea, aurrerantzean gasa bertaraino eman ahal izateko, Udalak bere eskumenekoak diren lanak ordainduta.

AZTERKETA JURIDIKOA

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 55. artikulua, bere d) atalean, Estatu eta Autonomia Erkidegoetako administrazioen eta



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Toki entitateetako administrazioen arteko koordinazioa, eraginkortasuna eta elkarrekiko lankidetzara arautzen du, dituzten xedeak ahalik eta era onenean bete ditzaten.

Aipatu Legearen 57. artikulua, besteak beste, Toki Administrazioa eta gainontzeko Administrazioen arteko lankidetzara ekonomikoa, teknikoa, eta administratiboa arautzen du, udal eskumeneko zerbitzuak emateko garaian. Lankidetzara hori, dagokion administrazio-hitzarmenaren edo partzuergoaren bitartez gauzatuko da.

Halaber, urriaren 1eko 40/2015 Legeak Hitzarmenak deskribatzen ditu 47. artikuluan eta hurrengoetan. Honakoa dio 47. artikulua:

1. Son convenios los acuerdos con efectos jurídicos adoptados por las Administraciones Públicas, los organismos públicos y entidades de derecho público vinculados o dependientes o las Universidades públicas entre sí o con sujetos de derecho privado para un fin común.

No tienen la consideración de convenios, los Protocolos Generales de Actuación o instrumentos similares que comporten meras declaraciones de intención de contenido general o que expresen la voluntad de las Administraciones y partes suscriptoras para actuar con un objetivo común, siempre que no supongan la formalización de compromisos jurídicos concretos y exigibles.

Era berean, aipatu legearen 48. artikulua hitzarmenen betekizunak xedatzen ditu:

“1.- Las Administraciones Públicas, sus organismos públicos y entidades de derecho público vinculados o dependientes y las Universidades públicas, en el ámbito de sus respectivas competencias, podrán suscribir convenios con sujetos de derecho público y privado, sin que ello pueda suponer cesión de la titularidad de la competencia.

...

3.- La suscripción de convenios deberá mejorar la eficiencia de la gestión pública, facilitar la utilización conjunta de medios y servicios públicos, contribuir a la realización de actividades de utilidad pública y cumplir con la legislación de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.

4.- La gestión, justificación y resto de actuaciones relacionadas con los gastos derivados de los convenios que incluyan compromisos financieros para la Administración Pública o cualquiera de sus organismos públicos o entidades de derecho público vinculados o dependientes que lo suscriban, así como con los fondos comprometidos en virtud de dichos convenios, se ajustarán a lo dispuesto en la legislación presupuestaria.

5.- Los convenios que incluyan compromisos financieros deberán ser financieramente sostenibles, debiendo quienes los suscriban tener capacidad para financiar los asumidos durante la vigencia del convenio.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

6.- *Las aportaciones financieras que se comprometan a realizar los firmantes no podrán ser superiores a los gastos derivados de la ejecución del convenio.*

...

8.- *Los convenios se perfeccionan por la prestación del consentimiento de las partes."*

Bestalde, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikularen 2. atalari idazkera berria eman zion Arrazionalizazio lege honek, eta gai-zerrenda bat osatu zuen, non udalek berariazko eskumenak egikarituko baitzituzten. Gai hauen artean, etxetiar izaerako ur-hornidura eta saneamendua ezinbesteko zerbitzuak dira udalentsako, aipatu Legearen 25.c) eta 26.1.a) artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Horretaz gain, Arrazionalizazio Legeak oinarrizko zerbitzuak koordinatzeko ekimena bultzatu nahi du 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, irizpide hau 7/85 Legearen 26.2 artikulura islatu delarik: "**2. En los municipios con población inferior a 20.000 habitantes será la Diputación provincial o entidad equivalente la que coordinará la prestación de los siguientes servicios:**

a)

b) *Abastecimiento de agua potable a domicilio y evacuación y tratamiento de aguas residuales.*

.....

Para coordinar la citada prestación de servicios la Diputación propondrá, con la conformidad de los municipios afectados, al Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas la forma de prestación, consistente en la prestación directa por la Diputación o la implantación de fórmulas de gestión compartida a través de consorcios, mancomunidades u otras fórmulas."

Beraz, toki-korporazioen eskumeneko zerbitzuak emateko garaian, elkarren arteko lankidetzan oinarritutako formulak bultzatu nahi dira: mankomunitateak, kontsorzioak, etab., horiek denak arrazionalizazio eta eraginkortasuna hobetzeko helburua dutelarik.

Azkoitiko udaleko zerbitzu teknikoek, proposamen honen aldeko txostena egin dute, eta administrazio bakoitzari dagozkion obrak eta haien finantzazioa banatzeko irizpideak zein kopuruak zehaztu dituzte. Halaber, Gipuzkoako Ur Kontsorzioak bere adostasuna azaldu du ekimen honekin.

Bestaldetik, Proiektu honetan jasotako lanak finantzatzeko, udal honek behar duen partida jadanik sortu du bere aurrekontuetan:

Txalonerreka Gipuzkoako Urak hitzarmena
58.100,00

2000.601.160.00.01



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Lankidetzaz hitzarmena dagokion hitzarmenaren bidez formalizatuko da, eta bera onesteko eskuduntza duen organoa Udalbatza Osoa da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.p) eta 47.2.h) artikuluetan xedaturikoaren arabera.

Horrenbestez,

EBAZPEN PROPOSAMENA

Lehenengoa.- Azkoitiko Udalaren eta Ur Kontsurtzioaren arteko lankidetzaz hitzarmena onestea, Txalonerreka eta Txerloia auzoetako hornidura eta saneamendua berritzeko eta beraiekin aurreikusitako gainontzeko lan zibilak kontratatu eta exekutatu ahal izateko, Gipuzkoako Ur Kontsurtzioak aurkezturiko Proiektuaren eta Udal Arkitektoak emandako txostenaren jasotakoaren arabera. Honakoak dira hitzarmenaren klausulak:

LEHENENGOA.- *Lankidetzaz hitzarmen honen xedea izango da, Azkoitiko Txalonerreka eta Txerloia auzoetan hornidura eta saneamendu sarea berritzeko, udal eskumenekoak diren gainontzeko lan zibilak burutzeko eta euri uren hoditeria berritzeko, kontratazio jardunbidea gauzatzea eta lanak exekutatzea, Gipuzkoako Ur Kontsurtzioak aurkezturiko Proiektuaren eta Udal Arkitektoak emandako txostenaren arabera.*

Aipatutako lan hauek barne hartzen dituzte: Proiektua, obra Zuzendaritza, segurtasun eta osasunaren koordinazioa, eta obraren beraren kontratazioa eta kudeaketa.

BIGARRENA.- *Azkoitiko Udalak Gipuzkoako Uren Kontsurtzioa eta Gipuzkoako Urak, S.A. baimentzen ditu Proiektuak eragindako eremuetako saneamendu sarea eta, orokorrean, obraren exekuziorako beharrezkoa den udal jabari publikoa okupatzeko.*

HIRUGARRENA.- *Azkoitiko udalaren aurrean, egingo diren obraren erantzule bakarra Gipuzkoako Ur Kontsurtzioa izango da.*

LAUGARRENA.- *Aurkeztutako Proiektuaren eta Azkoitiko udaleko Arkitektoak emandako txostenaren arabera egindako balorazioa kontutan harturik, Azkoitiko udalaren eskumeneko lanaren exekuzio materialaren (euri uren hoditeria berritzea) aurrekontua 47.994,44€ da.*

Beraz, %21eko BEZa kontutan hartuta, kontratatzeko aurrekontua, orokorrean, 58.073,27€ da.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Ordaindu beharreko kopuruan egon daitezkeen balizko aldaketak, aurretiazko baimena beharko dute. Hau da, udalari dagozkion lanen kontratazioan edota egikaritzan sortzen den edozein aldaketak Udalaren baimena beharko du Gipuzkoako Ur kontsortzioak hori onartu dezan.

BOSGARRENA.- *Azkoitiko Udalak bere eskumenari dagozkion lanak finantzatuko ditu, aurreko klausulan aipatu den kopurura arte, lizitazio jardunbidean izan daitekeen beherapenarekin.*

Azkoitiko Udalak ordainduko dio Gipuzkoako Ur Kontsortzioari aipatutako lanen kostua, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak horretarako eskaera egin (faktura eta egiaztagiri guztiak aurkeztuz) eta hilabeteko epean.

SEIGARRENA.- *Behin lanen exekuzioa amaituz gero, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak egindako edo berritutako azpiegiturak Azkoitiko udalaren esku jarriko ditu. Horretarako bien arteko harrera akta formalizatuko da. Ondasun hauek udal ondasunen inbentarioan sartuko ditu Azkoitiko Udalak, jabari publikoari atxikita.*

ZAZPIGARRENA.- *Hitzarmen honen iraupena lotuta egongo da lanen exekuzioa eta amaierarekin. Beraz, Azkoitiko Udalak egindako azpiegiturak jasotzen dituenean amaituko da, betiere gehienez urtebetekoa.*

Hala ere, obrek pleguetan zehaztutako berme-epea izango dute, Udalak eskuratzen dituenetik kontatzen hasita.

ZORTZIGARRENA.- *Hitzarmena edozein unetan berrikusi ahal izango da eta, hala badagokio, aldatu, alderdietako batek eskatuta sinatzaileek aho batez adostuta, hitzarmenari dagokion gehigarria sinatuz.*

BEDERATZIGARRENA.- *Hitzarmen honetako betebeharrak ez betetzea hitzarmena suntsiarazteko arrazoia izango da. Suntsiarazpena eragin duen alderdiak eragindako kalte eta galera guztiak ordaindu beharko dizkio beste alderdiari.*

Era berean, hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoiak izango dira indarrean dagoen legeriak hitzarmenaren izaeratik jasotzen dituen beste gauzak.

HAMARGARRENA.- *Hitzarmen honen interpretazioan edo egikaritzan sor daitezkeen edozein zalantza argitzeko dagokion organoa eratu ahalko da, zeina*



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

osatuko duten Gipuzkoako Ur Kontsortzioko bi kidek eta Udal honek izendatutako beste bik.

Hitzarmen honek izaera administratiboa izango du, eta beraz, haren interpretazioaren, aplikazioaren, betearazpenaren eta ondorioen inguruan sor daitezkeen auzi guztien berri izate administrazioarekiko auzien jurisdikzioari dagokio.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6. atikuluarekin bat etorritik, hitzarmen hau ez dago lege horren mende; nolana ere, lege horren printzipioak aplikatuko dira sor daitezkeen zalantzak eta hutsuneak ebazteko.

Bigarrenena.- Alkate Udalburuari ahalmena ematea, aipatu hitzarmena eta berau egikaritzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak izenpetzeko.

Hirugarrena.- Lankidetzak hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta web orrian, eta Gardentasun Atarian argitaratzea.

Laugarrena.- Erabaki hauek Gipuzkoako Ur Kontsortziolari eta udaleko Kontuhartzaitzari jakinartea.

2021eko otsailaren 18an eginiko Lurraldea batzorde informatiboan gaia aztertu zuen eta bozketaren emaitza honakoa izan zen:

Aldeko botoak: Imanol Arrizabalaga, Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Angel M^a Etxeberria, Itziar Joaristi, Jose Joakin Etxaniz eta Janire Igoa.”

Ana Azkoitia andreak azaldu du gaia.

Herri guztian ez daudela banatuta euri urak eta ur zikinak azaldu du. Hori dela eta, Gipuzkoako Urakek aktuzio bat egin behar duela ikusita, Txalonerrekan, Udalak finantzatzeko du euri-uren banaketaren obra.

Jose Joakin Etxaniz jaunak alde bozkatuko dutela iragarri du.

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitx Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Iburguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren eta Azkoitiko Udalaren arteko Hitzarmena, Txalonerreka auzoan uren sarearen konponketa eta Txerloian egin beharreko lanen ingurukoa, onartzea aho batez erabaki du.

3.- TRANSFERENTZIA BIDEZKO 1 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ONESPENA.

Honako irizpena aurkeztu da:

“ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN DIKTAMENA

1.- AURREKARIAK

2021urteko Aurrekontuaren barnean gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzia bidez kredituak aldatzeko izapidetzen den espedientea aztertu dugu.

Udaleko Lehendakariak egindako proposamena eta txostenak, ziurtagiriak eta agiri horren gainerako jarduerak aztertu ondoren, kontuan hartuz adierazitako aldaketa aurrekontuaren garapena arintzeko mesedegarria izango dela eta expediente horren izapideketa aplikagarriak zaizkion legei egokitzen zaiela.

Honez gain, kontu-hartzaileak honako txosten hau egin du Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoa

TXOSTENA

KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA

KREDITU TRANSFERENTZIAK 1/2021

**AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN
HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA**

ARAUDI APLIKAGARRIA:

2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.



1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.

13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa

9/2020 Foru Dekretu-Araua Toki entitateentzako ezohiko eta presazko finantza neurriak (GAO 12/11/2020)

AZTERTUTAKO TRAMITEA: KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA

1.- FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1.1- ENTITATE ZERRENDA:

AZKOITIKO UDALA
SAN JOSE EGOITZA
ZUBIAURRE ELKARGUNE INSTITUTOA

1.2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Aurrekontu aldaketaren espedienteak **-561.285,56** euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetak sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetak gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

9/2020 Foru dekretu arauak 2020 eta 2021erako arau fiskalak eten ditu. Ondorioz aurrekontuaren egonkortasunaren helbururik ez da bete behar 2021ean.

Hala ere foru dekretu arau honen 1.4 atalak dio hurrengo artikuluan araututako defizit helburuak gaindituz gero, toki entitateak behartuta egongo direla plan ekonomiko finantzario bat egitea eta onartzera, plan hori kudeaketa tresna eta epe luzerako planifikazio tresna izan dadin, baina haren betetze mailagatik neurri gehigarriak hartzeko obligaziorik izan gabe.

Aurrekontu egonkortasuneko helburuak 2021erako zehazterakoan Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei lagako die berari esleitutako defizit helburuaren %40. Ondorioz Azkoitiko Udalarentzat defizit globaleko helburua hauxe da:

Azkoitiko Udalaren kasuan **1.242.217** € da defizit muga, 2.2 artikulua arabera.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Hori dela eta, Aurrekontuaren aldaketaren espedienteak 9/2020 foru dekretu arauak ezartzen duen defizit helburuaren azpitik dagoenez, Azkoitiko Udala ez da behartuta egongo plan ekonomiko finantzario bat egitea. Hala ere, plan ekonomiko finantzarioa egiteko betebeharra dagoen ala ez jakiteko, defizit helburua likidazioaren unean aztertuko da.

Finantzen iraunkortasuna

2021eko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 5.106.188,38€, 2020an aurreikusten den likidatutako sarrera arrunten (13.349.287,74€) % 38,25 izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2020ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2021erako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2021erako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartzen UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak baina atal honetan ez da doiketarik egin.

9/2020 Foru dekretu arauak 2020 eta 2021erako arau fiskalak eten ditu. Ondorioz zor publikoaren helbururik ez da bete behar 2021ean.

Hala ere esan behar da 2020ko helburua %70a izan zela eta Azkoitiko Udalaren kasuan, 2021ean, zor publikoaren portzentajea dezente azpitik dagoela, % 38,25 a hain zuzen.

Gastuaren araua

	1	202	2020 AURRELIKIDAZIOA
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	15.145,56	14.6	15.890.733,
		89	
Zorraren interesak:	72,87	43.2	37.865,41
SEC doikuntzak:		695.	
Admin.publikoen ekarpen finalistekin finantzatutako gastua:	100,00	13.8	120.063,65
			15.732.804,
Gastu konputagarria:	76.772,69	83	
		377.	
BPGaren hazkundearen erreferentzia tasa 2020AN: %2,8	644,93		
Arau aldaketen eragina:		14.3	14.350.403,
Gastuaren muga:	50.403,32	32	
		473.	-
Gastuaren muga - Gastu konputagarria:	630,63	1382401,51	
			3.386.775,0
DGak finantzatutako obligazio ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	0,00	6	
DGak finantzatutako gastu konputagarria:	0,00		0



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Gastuaren muga - Gastu konputagarria, plana egiteko obligazioaren ondorioetarako: (1/2013 FAren 5.3 art./Jarraib. 3. erreg.)	473. 630,63	0,00
Gastuaren araua betetzat jotzen al da?	Bai	Bai

Gastu arauaren azterketa egiterakoan, simulazio bat besterik ez da egin, 2020ko erreferentziak kontuan hartuz. 2021erako ez dago ez hazkundearen erreferentzi tasarik, ezta gastu konputagarria kalkulatu beharrik. Gastu araua etenda dago baita ere 9/2020 foru Dekretu arauaren arabera.

1.3.- ONDORIOAK

9/2020 Foru dekretu arauak 2020 eta 2021erako arau fiskalak eten ditu

Hala ere Aurrekontuaren aldaketaren espedienteak 1/2021 foru dekretu arauak ezartzen duen defizit helburuaren azpitik dagoenez, Azkoitiko Udala ez da behartuta egongo plan ekonomiko finantzario bat egitea. Hala ere, plan ekonomiko finantzarioa egiteko betebeharra dagoen ala ez jakiteko, defizit helburua likidazioaren unean aztertuko da.

Zor publikoaren helburuari dagokionez esan behar da 2020ko helburua %70a izan zela eta Azkoitiko Udalaren kasuan, 2021ean, zor publikoaren portzentajea dezente azpitik dagoela, % 38,25 a hain zuzen.

Eta gastu araua ere etenda dago 9/2020 foru Dekretu arauaren arabera.

Azkoitian, 2021eko otsailak 15ean
Kontuhartzaileak

Beraz, Antolakuntza batzordeak 2021eko otsailaren 18an izandako Bilkuran ondorengo irizpena proposatzen dio Udalbatzari.

IRIZPENA

LEHENENGOA: Proposamenean zerrendatzen diren gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzia bidez egin beharreko kreditu aldaketarako expedientea onestea, 170.000,00 € zenbatekoa.

GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

PARTIDA	H	Jeitsi	behin
---------	---	--------	-------



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

PRESUPUEST.	DENOMINACIÓN/IZENA	aserako k reditua	era	betiko Kreditua k
1 2000,692,342,00,01 2021	Gazteen parkea SKATE	7 8.000,00	70.00 0,00	8.000,00
1 6000,623,165,00,04 2021	Cambio led alumbrado publico	1 00.000,00	100.0 00,00	0,00
KAP 6		1 78.000,00	170.0 00,00	8.000,00
	GUZTIRA	1 78.000,00	170.0 00,00	8.000,00

PARTIDAS DE GASTOS CUYOS CRÉDITOS SE INCREMENTAN (ALTAS)

PARTIDA PRESUPUEST.	DENOMINACIÓN/IZENA	H aserako k reditua	Gehi kuntzak	behin betiko Kreditua k
1 8000,481,431,50,02 2021	Merkataritza eta ostalaritza arloko hainbat dirulag	2 2.000,00	70.00 0,00	92.000,0 0
KAP 4		2 2.000,00	70.00 0,00	92.000,0 0
1 2000,623,165,10,02 2021	Feder dirulaguntza:kale argiteria berritzea	0 ,00	100.0 00,00	100.000, 00
KAP 6		0 ,00	100.0 00,00	100.000, 00
	GUZTIRA	2 2.000,00	170.0 00,00	192.000, 00

BIGARRENA: expediente hori onartzea Udalbatzari dagokio, eta ez dira berari ezartzen Aurrekontu Orokorrari ezartzen zaizkion informazio tramitea, erreklamazioak, publizitatea eta bestek.

Antolakuntza Batzordeak, 2021eko otsailaren 18an egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Ainara Goenaga, Iraitz Otaño, Jose Joakin Etxaniz.”

Ana Azkoitia andreak azaldu du gaia.

Bi partida direla esan du, bat 100.000€koa dela eta honi izena eta partida-zenbakia aldatzen zaiola.

Bestalde, 70.000€ko partida jartzen direla esan du, merkataritza eta ostalaritzari laguntzak emateko.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Jose Joakin Etxaniz jaunak esan du LED argiteriara aldaketa egitearen alde daudela eta izena aldatzea dela dirudiela.

Ostalaritzaren arloko laguntzak ematearen alde daudela adierazi du ondoren, Udala herritarretatik gertuen dagoen instituzioa izanik. Uste baino lehen emango direla dirulaguntzak esan du, eta premiari garrantzia emanez, alde bozkatuko dute.

Ana Azkoitia andreak orain partida jartzen dela azaldu du. Ostalariei kontsultatuko zaiela dirulaguntzak nola ematea pentsatzen den. Beste taldeak ere gonbidatuta daudela bilerara dio, eta ekarpenak egitera gonbidatzen ditu nola eman erabakitzeko.

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Ibarguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak Transferentzia bidezko 1 zenbakidun kreditu aldaketa onartzea aho batez erabaki du.

4.- AZKOITIKO OSTALARIEN ORDEZKARITZAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Iraitz Otaño jaunak galdetzen du bosgarren puntua laugarrengoi osoko zuzenketa bat al den.

Idazkariak erantzun dio Iraitz Otaño jaunari, testua ez zaiola baztertzailea iruditzen, eta planteatu ere ez dela horrela egin; beraz, biak bozkatzea proposatzen du.

Marijose Arregi andreak irakurri ditu ostalarien mozioaren eskaerak.

Jose Joakin Etxaniz jaunak esan du ez direla mozioetan erabakiak hartzearen aldekoak.

Ez zaio eraginkorra iruditzen mozioen bitartez erabakiak hartzea.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Amaitzeko, ez dutela alde bozkatuko adierazi du, abstenitu egingo direla.

Janire Igoa andreak Covid 19ak eragindako krisiarengatik, okerren pasatzen ari direnei elkartasuna adierazi die.

Mozioan aipatzen diren gastu finakoak, beste sektore batzuek ere badituztenez, ez dela egokia deritzo, soilik ostalaritzako autonomoentzako gutxieneko soldata eskatzea.

Eusko Jaurlaritzak dirulaguntzak ordaintzen ari dela dio, ostalariak babesteko.

Baita ere esan du, zergen ordainketa malgutzearen alde daudela, baina, ez dutela babesten Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea Ondasun Higiezinaren Zerga ez kobratzea, gehienetan zerga hau udalek kudeatzen dutenean.

Amaitzeko, Gipuzkoako Ostalaritza Aurrera elkarteak aurkeztutako mozioa ez dutela babesten adierazi du, eta beste mozio bat aurkezten dutela.

Iraitz Otañok jaunak ostalarien elkarteak aurkeztutako testua onartuko dutela esan du.

Hau da aurkeztu den mozioa:

“Covid 19aren ondorioz, Estatuko Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak agindutako ostalaritzaren itxierak direla eta, ekonomiaren arlo hori jasaten ari den egoera larriari irtenbide egokia emateko neurriak har ditzaten eskatzeko **UDAL MOZIO PROPOSAMENA**, Ostalaritza Aurrera Gipuzkoa plataformak eskatuta.

ARRAZOIEN AZALPENA

Urte honetako martxoaren 14an, lehenengo Eusko Jaurlaritzak eta egun berean Estatuko gobernuburuak, ostalaritza isteko agindua eman zuten.

Maiatzaren 11n, deseskalatzeko 1. fasean, ostalaritza berriro irekitzeko baimena iritsi zen. Irekitzeko baldintzak hain murrizak izanik, ostalarien gehiengoak maiatzaren 25etik aurrera ireki zuten. Beraz, 71 egun itxita egon ziren gure negozioak.

Ekainaren 21ean alarma egoera altxa eta, pandemiaren bilakaera negatiboa zela eta, abuztuaren 17an murrizketa berriak etorri ziren eta gaueko aisia erabat itxi zen. Urriaren 25ean bigarren alarma egoera agindu zen eta azaroaren 6an bigarren itxiera iritsi zen.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Abenduaren 12an irekitzeko baimena izan genuen, ordutegi eta aforo murrizketa handiekin, 35 egun itxita egon ondoren. Baina ez genuen guztiok irekitzeko baimenik izan. Horrela, Arrasate, Ordizia eta Eibarrek itxita jarraitu zuten.

Handik hiru egunetara, Beasain, Zaldibia eta Azpeitiako ostalaritzaren itxiera agindu zen. Abenduaren 18an, berriz, Segura eta Eskoriatzako ostalaritza itxi zen.

Gaurko egunean, abenduak 31, Errezil, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, Segura, Zaldibia, Arretxabaleta, Arrasate, Azpeitia, Beasain eta Ordiziako ostalaritzak itxita jarraitzen du.

Guztira, Gipuzkoako ostalariok gure negozioak itxita eduki ditugu 106 eta 125 egun artean, udalerrri bakoitzaren egoera epidemiologikoaren arabera. Gaueko ostalaritzak, berriz, 7 hilabetetik gora darama erabat itxita.

2021 urtea, 2020a amaitu zen modu berean hasi da, egoera hau ez da jasangarria. 2021 urterako ez da tunelaren amaierako argia ikusten. Garbi ikusten den gauz bakarra da, ostalaritzak jarraitzen duela kaltea jasotzen, debeku eta murrizketekin.

Eta itxita egondako epean ere, gure gastu finko guztiak ordaintzen jarraitu behar izan dugu: telefona, aholkularitza-gastuak, aseguruak, gastu informatikoak, gasa, argiindarra, OHZ, zaborren eta terrazen tasak, alokairuak, maileguak, banketxe-gastuak, suhitzalgailuem mantenua, alarmen hileroko kuota, SGAE, ...

Egia da, tokian tokiko udalek lagundu digute, neurri ezberdinen bidez, gastu finko batzuk arintzen, terraza- eta zabor-tasak bolara batez kenduz, kontsumoa bizkortzeko bonuak ateraz, EPletarako laguntza emanez, terrazen azalera handitzeko aldi baterako baimena emanez ...

Bestalde, lehenengo itxialdian, mutuan bidez, 666€ eta 1098€ arteko kopurua jaso genuen eta autonomoen kotizazioa kendu ziguten.

Bigarren itxialdian, irailaren 29ko 30/2020 Errege-Dekretuaren bidez, hilean 301,6 eta 377€ arteko kopurua jasotzeko eskubidea onartu zitzaigun (kotizazio minimoaren oinarriari dagokionaren %50 kasu batzuetan eta %40 beste batzuetan) itxialdiak irauten duen bitartean; era berean, ez digute kobratuko autonomoen kuotarik.

Eusko Jaurlaritzak, berriz, aurreikusiak ditu 3000 eta 4500€ arteko laguntzak zuzenak, eta ostalari gutxi batzuk dagoeneko jaso dituzte.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Alokairuak dituztenen egoera, berriz, jabe eta maizterren akordioen baitan geratu da.

Maileguen kasuan, ostalari askok ordainketen urtebeteko atzerapena lortu dute.

Egiari zor, aitortu behar da administrazio ezberdinak ahaleginak egin dituztela gure egoera arintzeko; baina EZ DA NAHIKOA.

Faktura finko guztiak ordaindu ondoren, ikusi dugu jasotako laguntzekin ostalari gehienok EZ DUGULA LORTU GASTU FINKOEI AURRE EGITEA.

Horrez gain, familia asko eta asko ostalaritzatik bizi gara, eta 2020 URTEAREN HERENA BAINO GEHIAGOZ GEURE BIZITZAKO GASTUETARAKO DIRU-SARRERARIK GABE GELDITU GARA.

Gipuzkoako ostalari gehienok autonomo txikiak gara, lokal bat edo bi errentan edo jabetzan ditugu, **baina ez dugu diru-sarrerarik eguneroko bizitzako gastuei aurre egiteko.**

Egoera horrek hainbat eta hainbat familia **miseriara** garamatza. Gure egoera animikoa ere desesperazioaren mugan aurkitzen da.

Ez dugu lan egiterik izan eta ezin izan dugu soldatarik eraman gure etxeetara.

Arrazoi horiek guztiak direla eta, honako eskaera hauek Osoko Bildurari aurkeztu nahi dizkiogu, onartuak izan daitezten:

- 1. Eskatu Azkoitiko Udalari EUDELI, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari udalerrian autonomoek bizi duten egoeraren berri emateko.**
- 2. Eskatu Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari diru laguntzak emateko ostalaritza sektoreari.**
- 3. Eskatu Gipuzkoako Foru Aldundiari ostalaritzako establezimenduetan (IBI) zergen bilketa bertan behera uzteko jarduera normala berreskuratu arte."**

Bozketaren emaitza honakoa da:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga eta Angel M^a Etxeberria Ibarguren.

Kontrako botoak: Janire Igoa Merino.

Abstentzioak: Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak Azkoitiko ostalarien ordezkartzak aurkeztutako Mozioa onartzea gehiengoz erabaki du.

5.- PSE-EE UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ORDEZKARITZAREN MOZIOAREN AURREAN.

Janire Igoa andreak irakurri ditu mozioaren eskaera puntuak.

Iraitz Otaño jaunak dio lehenengo testua babestuko dutela, eta PSE-EEri esan nahiko liokeela, bere burua dela bai Espainiako Gobernua, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia eta eskatzeko beste modu batzuk daudela.

Hau da aurkeztu den mozioa:

“Ostalaritza Aurrera Gipuzkoa ostalarien plataformak aurkeztutako mozioa ez den beste bat

COVID-19ak eragindako krisi sanitarioak erabat aldatu du aurrekaririk ez duen krisi bati aurre egin behar dion munduko ekonomiaren agertokia. Nazioarteko balio-kateen hausturak, jarduera jakin batzuen eskaintzan izandako murrizketak eta errespetatu beharreko distantzia fisikoko neurrien eta mugikortasunaren murrizketaren ondorioz eskaeran gertatutako beherakadak, munduaren zati handi batean, aurrekaririk gabeko atzeraldia eragin dute.

Pandemia zabaltzearekin batera, jarduera ekonomikoa fase diferentetatik igaro da gune geografiko eta herrialde bakoitzean, eta epizentroa Asiatik Amerikara igaro da, 2020ko udaberrian Europako herrialde asko bortizki kolpatu ondoren.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Pandemiari aurre egiteko neurrien ondorioz, 2020ko lehen ardian Europako ekonomia atzeraldian bortitzez batean murgildu zen, Bigarren Mundu Gerraz geroztik latzena. Europako Batzordearen kalkuluen arabera, euro zonako ekonomiak bere ahalmenaren % 25 eta % 30 azpitik funtzionatu du konfinamendu zorrotzeneko garaian. 2020an, Euro zonako BPGd % 8,7 uzkuetzea aurreikusten da, 2021ean urteko % 6,1eko hazkunde-tasara erreperatu aurretik.

Espainiaren kasuan, inpaktu ekonomikoa eta soziala, bereziki handia izan da martxoaren erdialdetik aurre, hartutako euste-neurrien eta neurri horiek eragin zuzena izan duten sektoreen pisu handiaren ondorioz. Europako gainerako lekuetan bezala, V asimetrico baten moduko bilakaera emango dela aurreikusten da: BPGd-aren beherakadaren ondoren, urtearen amaierara arte pixkanaka gorantz egitea aurreikusten zen, 2021ean hazkunde-tasa handia lortu arte.

Aurreikuspenak ez dira oso fidagarriak izango, txertoa eragina izaten hasi eta kutsatuen kopurua nabarmen murriztu arte. COVID-19aren krisiaren inpaktua, funtsean, mundu osoan erantzun sanitarioko neurrien egitura-inpaktuak eta iraupenak, nazioartean enplegua eta jarduera suspertzeko indarrak, eta lortuko diren hazkunde errealak eta potentzialak baldintzatuko dute.

Hala, martxotik aurrera, hainbat erakunde publikok, hala nola Europako Batzordeak, Espainiako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Udalak berak ekonomia-sarea leheneratzeko eta suspertzeko hainbat plan eta neurri jarri ditugu abian. Plan horien artean daude likidezia babesteko, lanaldia egokitze eta telelanari laguntzeko neurriak, eta Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteen (ABEEE) bidez eta familia-errentak eutsiz enplegua mantentzeko malgutze eta babes publikoa emateko neurriak, autonomoengan eta pandemiak bereziki kaltetutako kolektiboengan arreta berezia ipiniz. Gainera, mugikortasun-murrizketak eta eskaeren beherakadak gehien eragin duten esparruetan —adibidez, turismoa, garraioa eta automobilgintza— produkzio-tartea ixten laguntzeko sektore-planak jarri dira abian. Izan ere, esparru horiek pisu handia dute BPGd-an eta esportazioan, baita ekonomiaren gainerako arloetan ere. Baina toki-mailari erreparatzen badiogu, krisia gehien jasan zuten enpresa txiki eta ertainentzako laguntza zuzenak onartu dira, tokiko merkataritzara eta ostalaritzara bideratutako kontsumorako bonu-jaulkipenak egin dira, edo udal-tasen eta zergen ordainketak atzeratu eta salbuetsi dira, beste hainbat neurriren artean.

Erantzun azkar horri esker, inpaktu ekonomikoa eta soziala murriztea lortu da, enpleguak babestuz eta inor atzean gera ez dadin bermatuz. Aurreko ziklotan ez bezala, hartutako neurriei esker, langileak kanporatzearen orde besterik neurri batzuk hartu dira, enplegu-galeraren gaineko inpaktua arinduz eta, era horretan, susperraldia arriskuan jarriko lukeen kalte handiagoa ekidinez. Gainera, produkzio-sarearen zati



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

handi bat babestu eta kontsumoaren susperraldia ahalbidetuko duen errenta-maila mantendu ahal izan dira.

Hala eta guztiz ere, jakin badakigu hori guztia ez dela nahikoa, eta erakunde publikoek neurriak hartzen jarraitu behar dutela osasunaren, gizartearen eta ekonomiaren arloetan COVID-19aren krisi larri honen ondorioak arintzen laguntzeko.

Horren ondorioz, Azkoitiko Udaleko Talde Sozialistak mozio hau aurkezten du udalbatzan eztabaidatzeko eta onartzeko:

1. Azkoitiko Udaleko Osoko Bilkurak elkartasuna adierazi nahi die udalerrian Covid-19aren pandemiaren ondorioz txarrenak jasaten ari diren sektoreei, esaterako, txikizkako saltokiei eta tokiko ostalaritza-establezimenduei.
2. Azkoitiko Udalak Europako Batzordeari, Espainiako Gobernuari, Eusko Jaurlaritzari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta udal-gobernuari, orain arte egin duten moduan, sustapen ekonomikoarekin eta zerga-sistemearekin lotuta, ezohiko eta beharrezko neurri guztiak hartzen jarrai dezaten eskatzen die, pandemiari aurre egiteko hartu diren neurri murriztaileek eragindako kalteak arintzeko.
3. Azkoitiko Udalak erakundeen arteko lankidetzaz indartzeko premiatzen du, erakunde-maila diferenteetan osagarriak izan daitezkeen babes-neurriak koordinatzeko, eta era horretan, neurri horiek sektore bakoitzera hobeto egokitzeko eta egoera ekonomikoaren bilakaerari jarraipen zorrotzagoa egin ahal izateko.
4. Azkoitiko Udaleko Osoko Bilkurak Gipuzkoako Foru Aldundiari eta udal-gobernuari eskatzen die 2021eko zergak eta tasak ordaintzeko ezarri den zerga-egutegiaren malgutasunarekin edo neurrira eginiko zatikatzeko-baimenarekin jarraitzeko, Covid-19aren pandemiaren ondorioz murrizketak jasan dituzten establezimenduentzat.
5. Azkoitiko Udaleko Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eudeli akordio honen berri emango die.”

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi eta Janire Igoa Merino.

Abstentzioak: Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Iburguren eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak PSE-EE Udal taldeak ostalarien ordezkariaren mozioaren aurrean aurkeztutako Mozioa onartzea gehiengoz erabaki du.

6.- EAJ-PNV ETA PSE-EE UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO MARTXOAREN 8KO ADIERAZPENA.

Mertxe Zubillaga andreak eta Janire Igoa andreak hurrengo adierazpena irakurri dute:

“2021eko MARTXOAREN 8ko ADIERAZPENA

ZAINTZA BERDINTASUNEAN. Emakumeen egitekoa Pandemian eta zaintzaren Krisi Globalean

Dimentsio askoko krisi sistemikoan gaude, zeina gurutzatu eta erlazionatu egiten baita aurretik zeuden beste krisi batzuekin; esaterako, ekologikoa eta zaintza-arlokoa. Pandemiak agerian utzi ditu mugimendu feminista eta emakumeen kolektiboak egiten ari ziren zenbait aldarrikapen: giza bizitza zaugarria da, eta giza ingurunearen, ingurumenaren eta ingurune komunitarioaren zeharo mendekoa. Ezerk ez du garrantzi handiagoa izan behar bizitza zaintzeak baino, pandemia dela-eta muturreraino prekario bihurtu eta ahuldu den bizitza.

Gaur, martxoak 8, Emakumeen nazioarteko egunean, pandemiak eta haren kudeaketak baldintzatutako urte honetan, aintzat hartu beharra dago emakumeek pandemia eta beraren ondorioak borrokatzeko mundu osoan egindako ekarpena. Zaintzaren ardura emakumeei egokitu zaie, bai zerbitzu publikoetan (osasungintza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, merkataritza eta elikadura...) bai etxean barruan, eta batez ere haiek eraman dute krisi sanitario eta sozial honetan funtsezkoak izan diren zerbitzu askoren zama. Emakumeen artean ere banaketa desorekatua da, klase sozialaren, arrazializazioaren eta migrazio-estatusaren arabera. Gainera, kasurik gehienetan egoera prekarioan egindako lanak dira.

Berdintasunik gabeko banaketa horrek, gaitzargaz gain, eta hark emakumeen osasunari eta bizi-kalitateari dakartzkien ondorioez gain, zaintza-sistemaren



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

prekarietatea ere azaleratu du, eta lehendik ere bazeuden desberdintasunak areagotu ditu. Gure gizarte-ereduak familiaren, eta, neurriz kanpoko proportzioan, emakumeen esku uzten ditu zaintza gehienak, bai ordainpekoak bai ordaingabeak; oso gutxi ematen dira eremu publikoan. Bestalde, egoera eta estatus okerreneko emakumeek (guraso bakarreko familien buruak, behartsuenak, kolektibo zaurgarrietakoak, indarkeria matxistaren biktimak... neurri handiagoan jasaten dituzte zaintza-zamaren ondorio negatiboak.

Ondorioz, gizarteak bere aitortpena adierazteko moduak konpromiso irmoa izan behar du, berdintasunik gabeko banaketa bidegabe horri euskarria ematen dioten genero-arrakalak borrokatzeko konpromisoa. Desberdintasun horiek agerikoak dira emakumeek funtsezko zerbitzuetan egiten duten lanaren baldintzen prekaritateari begiratuz gero. Bada garaia zaintza-lan guztiei dagokien balioa emateko, eta aurrera egiteko erantzunkidetasun handiagoko eredu baterantz, pertsona guztientzat ekitate eta ongizate handiagoa sortzeko.

Udalak gaude lehen lerroan, pandemiari eta hark pertsonengan dituen ondorioei aurre egiten, eta liderrak izan behar dugu zaintzari eta haren hornikuntzari buruzko politika publikoak bultzatzeko orduan, erantzunkidetasun publikotik abiatuta, eta arreta emanez gizon eta emakumeen baldintza eta inpaktu desberdinei.

Erakundeok koordinatuta egoten jarraitu behar dugu, eta bideak zabaldu behar ditugu herritarrek, eta bereziki mota askotako emakumeen kolektiboek eta mugimendu feministak, benetan eta modu eraginkorrean parte har dezaten erabaki publikoetan.

Horregatik guztiagatik, Udal honek, bere eskumenen esparruaren barruan, honako proposamenak hartzen ditu:

- Gizartean zaintza antolatzeko **ereduari buruzko eztabaida** bultzatzea eta eztabaida horretan buru izatea, bizitza erdigunean jartzean oinarritzen den ikuspuntu feminista batetik abiatuta, zaintzaren erantzunkidetasun sozial eta komunitarioranzko bidean.
- **Analisisa** egitea, genero-ikuspuntutik, kolektibo zaurgarrienen egoerari eta beharrezanez buruz, baita COVID-19aren ondorioei buruz ere, eta horiei aurre egiteko premiazko **neurriak martxan jartzea**.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- COVIDaren krisiaren eragina arintzeko onartzen diren neurri guztietan genero-ikuspuntua gehitzen dela bermatzea, **laguntzez eta babes-programez** den bezainbatean.
- Konponbide bideragarriak aztertzea eta ezartzea **adingabekoen eta mendekotasuna dutenen zaintzari laguntzeko** tokiko zerbitzuentzat, zaintza baldintza duin eta bidezkoetan egin dadin saiatuz edo/eta erraztuz, bai ematen duenarentzat bai jasotzen duenarentzat ere.
- **Udalen Berdintasun-plangintzetan**, espresuki azpimarratzea emakumeen ahalduntzea, zaintzaren balioa, eta hari dagokionez gizonek duten **erantzunkidetasuna**.
- Berdintasuneko tokiko politikak garatzeko eta generoa tokiko politika guztietan zehar-lerroa izateko erabiltzen diren **giza baliabideak eta baliabide tekniko eta ekonomikoak** sendotzea eta babestea.
- Tokiko **zaintza-sare komunitarioek** babesa ematea.”

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Ibarguren eta Janire Igoa Merino.

Abstentzioak: Jose Joakin Etxaniz Peña.

7.- BEHIN BETIKO ONESPENEN BERRI EMATEA.

Alkate jaunak honako behin betiko onespenen berri eman du:

“2020ko abenduaren 30ean Udalbatzak onartutakoak eta alegaziorik egon ez denez behin betikoz onartuak:



- 2021 ekitaldirako Azkoitiko Udala, San Jose Egoitza, Zubiaurre-Elkargune Institutua, Azkoitia Lantzen, S.A.-ren aurrekontuak eta Aurrekontu Kontsolidatua.
- 2021 ekitaldirako Azkoitiko Udalaren langileen plantila.”

8.- AURREKONTUARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Ondoren, aurrekontuari buruzko informazioa era honetan eman da:

	Behin bet. aurr. Pres. def.	Baimendua Autorizado	Erabilia Dispuesto	Onart. oblig. Contraído	Ordainketa Pagado
Oraingo ekitaldia/Ej. corriente GASTUAK	15.245.000,00	3.365.000,03	3.074.824,52	525.588,49	514.388,27
	Behin bet. aurr. Pres. Def.	Onar. esk. Garb Dchos. Recs..	Bildut-garbia Recaudado	Kobr. Dagoena Pte. cobro	Itzulketak Devoluciones
Oraingo ekitaldia/Ej. Corriente SARRERAK	15.245.000,00	981.426,12	36.933,89	944.492,23	238,43

9.- GALDE ERREGUAK.

Alkate Jk. COVID-19ko intzidentzia tasan Azkoitia eremu berdean sartu dela dio.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren ebazpena iritsi zaiola gaur azaldu du, eta eskatutako Irigarritasunaren inguruko dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa eman dietela, 300.000€koa, honako bi kontzeptuetan: Irigarritasun plana eta Floreagako igogailuko 1. faseari dagozkionak.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, Alkate jaunak bilkurari amaiera eman dio, arratsaldeko zortziak hogeita sei minutu gutxi direnean eta nik, Idazkariak, akta hau jaso dut, Agirien Liburura transkribatuko delarik.

ALKATEA

IDAZKARIAK

**Akta honen osagarria izango da, berarekin batera elektronikoki sinatzen den audioa.*



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021PLEN0008-Akta/Acta ()